

KALIFATOAK DENAK ETSAI

Estatu Islamiarraren mendekua Irakeko suni tribu bat suntsitzeraino iritsi da

 **POLITIKA /** Dabid LAZKANOITURBURU

Siriako eta Irakeko hainbat lurralde eskuratu dituen Estatu Islamiarrak bere kalifato egitasmoa oztopatzen duen oro suntsitzeko prest dago. Hasieran xiitak ziren bere etsai nagusiak, gero, jezidiak («deabruaren adoratzaileak») eta kurduak. Azken egunetan, Irakeko tribu bateko ehunka kide erahil ditu. Hauen errua, yihadistei aurre egiten saiatu izana.

Estatu Islamiarrak (Daesh akronimo arabiarrez ezagutzen dena) udaberrian ekin zion bere amets izugarria errealtate bihurtzeari. Ordurako, Siria eta Irak arteko hainbat eskualdetan jaun eta jabe ziren yihadistak. Euren proiektua, Mahoma profetaren garaiko egitura-keta politikoa berreskuratzea eta bere irakasgaiaren (Koranaren eta liburu santuaren interpretazioen) ustezko interpretazio moral estuena –kasu gehienetan preislamikoak bada ere– ezartzea. Horrelakoa da ezarri nahi duten kalifatoa.

Beraiena zen eta da oraindik Siriako erregimenak kontrolpean ez duen hiri haundi bakarra, Raqqa, alegia. Eta urte hasieran eskuratu zuten Falujah hiria, AEBen okupazioan irakiarren erresistentziaren sinbolo bilakatu zena. Al-Anbar eskualdeko Ramadi hiri-burua ere hartzen saiatu ziren, baina auzo batzuetara baino ez ziren iritsi.

Daesh ekainean burutu zuen benetako ofentsiba, Irakeko bigarren hiria, Mosul (2 milioi biztanle) eta, besteak beste, Tikrit (Saddam Hussein Irakeko presidentea zenaren jaioterria) eskuratuz.

SIRIAN INDARTUTA

Nola liteke asko jota 30.000 mila inguru muyahidinez osatutako talde batek Irakeko lurraldeko %20 eskuratu ahal izatea? Alde batetik, Estatu Islamikoa, hiru urteko gerraren ostean, Sirian lortu duen ospeaz baliatu da. Talde matxino guztien artean gailendu da eta asko dira bere atek jo di-

tuzten gerrilari siriar eta atzerri-tik iritsitako yihadistak.

Bestetik, Irakeko iparreko eta mendebaldeko gehiengoa osatzen duten sunien haserrea probestu du Daesh. Amerikako Estatu Batuen (AEB) okupazioaren ondotik, Bagdaden Gobernua eskuratu duen gehiengo xiitaren agintepean zanpatuta sentitzen dira suniak. Ez zaie arrazorik falta.

BAATHEN KONPLIZITATEA

Hirugarrenik, bere garaian alderdi guztiz ahaltsua izan zen Saddam Baathen jarraitzaileek, zehazki, bere Armadako soldadu ohiek, babesa eskaini zieten lehen momentutik yihadistei hiri sunietako atariak zabalduz. Estatu Islamiarraren erasoaldiaren ostean boterea berreskuratuko zutela uste bazuten, oker zeuden, momentuz behintzat, eta ez dirudi ezer garbirik aterako dutenik.

Paradoxikoa suerta daiteke kalifatoaren lurreratzearen erantzule Baath alderdi «laikoa» izatea. Suerta daiteke ezetz. Izan ere, gauza batean bat datoz yihadista hauek eta Baath alderdia: Siria- ren eta Iraken batasuna aldarrikatzen dute biek ala biek. Bi herrialdeen agintea izan du Baath alderdiak esku artean –Damas-kon hala jarraitzen du–, baina elkarri mokoka aritu izan dira ia beti.

Estatutuetan behintzat bere burua panarabistatzat eta «sozialistatzat» duen Baath alderdiak lortu ez zuena, hau da, bi herrialde arabiarren arteko mugak desagerraraztza, Daesheko yihadista «zoroek» –edo ez hain zoroek– lortu dute. Historia birritan ger-

tatzen da, bigarren aldian, fartsa bezala, Marxek zioenez.

GARBIKETA ETNIKOA ETA IZUA

Teoriak eta paradoxak albo batera utzita, hasiera hasieratik ekin dio Daesh bere proiektu teokratikotik kanpo daudenak, edo kanpoan ikusten dituenak, suntsitzeari. Eta horretarako bi estrategia ezberdin baina guztiz bateragarriak erabiltzen ditu; garbiketa etnikoa eta izua.

Bere lehen etsaiak musulmanen gutxiengoak dira. Hasiera hasieratik, Daesh Irakeko Al Qaeda bezala jaio zenetik, biztanlego xiita izan da bere atentatuen jomuga «preziatuena». Yihadista hauentzat apostatak dira xiitak, erlijio berdinekoak, bai, baina bide okerra hautatu dutenak. Ez dago pekatu larriagorik, ezta kristaua izatea ere. Azken finean, yihadisten interpretazio erlijiosoak, wahabismoak, errespetu handiagoko dio –kasu horretan errespetu hitza erabiltzerik bada- go– kristautasunari, islama beza-

la, Liburu Sakratuaren erlijioetarikoa bat delako.

Horrela bada, Mosulen sartu eta ehunka soldadu xiiten exekuzioa bideoz eman zuen Estatu Islamiarrak. Gauza bera egin zuen Raqqa, Siriako Armadaren egoitza baten aurkako setioan harri-patu zituzten dozenaka soldadu siriarrekin. Asmoa, izua zabal-tzea. Baita lortu ere.

Jezidien izena aipatzea infernuko amildegira ateratzea baino larriagoa da. Kurduen gutxiengoa dira jezidiak, erlijio sinkretikoa praktikatzen dutenak. Dirudie-nez, aintzinako Pertsia (egungo Iran) erlijioa zen eta zoroas-trismoaren aztarnak ere ageri dira jezidien sinesmenean. «Deabruaren adoratzaileak» dira yiha-distentzat. Ez dute, beraz, bizitzea merezi ere.

Mosul hartu eta gero, milaka eta milaka jezikid alde egin behar izan zuten, Sinjarreko mendietan ezkutatuz. Armada kurduak (peshmergak) babesa eskaini die askori, baina lekukoek salatu du-



Abu Bakr al-Baghdadi
Estatu Islamiarraren
Kalifatoko emirraren
sermoia Mosul hiriko
meskita batean.

AFP

tenez, ehunka dira erahildako gizonak (eta mutilak) eta milaka bahitutako neska eta emakumeak. Daesheko kideek bortxatu egiten omen dituzte emakume horiek eta sexu harremanetarako morroi gisa eskaintzen dizkiete mundu osotik bere alde borrokatzera iritsi diren yihadistei.

KOBANEKO KURDUAK

Azken hilabetean kurduak, batez ere, Siriako iparraldean bizi direnak, ditu jomugan Estatu Islamiarrak. Asteak daramatzate yihadistek Kobane hiria hartzeko ahaleginetan. Hiria erortzea kolpe latza litzateke kurduentzat, beren herrialdea hiru zatitan banatuta egonik, erdibituta geratuko zelako. Bide batez, Daesh kontrolpean duen Siriak Turkiako muga zabaldu eta Irakeraino aurrrera egiteko aukera emango lioke.

Hala ere, ez dirudi Kobane oso eremu estrategikoa denik, are gutxiago AEBen aire erasoetan ehunka yihadista galtzeko. Auzia

politikoa da. Estatu Islamiarrak kurduak beren lurretan martxan jarri duten botere autonomo laikoa –ez Al-Assadekin, ezta ere siriar matxinoekin–, etnia eta erlijio orori irekia, suntsitu nahi du.

ERDIBIDE ARRISKUTSUAN

Xiiak, kurduak, jezidiak... azken egunetan luzatu egin du Estatu Islamiarrak bere biktimen zerrenda. Albu Nimir tribu suniaren 300dik gora kide erahil ditu. Ramadi hiritik iparraldera du tribu honek bere gordelekua eta

Jezidien izena aipatzea infernuko amildegira ateratzea baino larriagoa da. Kurduen gutxiengoa dira jezidiak, erlijio sinkretikoa praktikatzen dutenak

Mosul hartu eta gero, milaka jezidik alde egin behar izan zuten, Sinjarreko mendietan barna. Ehunka dira erahildako gizonak eta milaka bahitutako eta bortxatutako emakumeak

yihadistei aurre egitera ausartu zen joan den urrian, zituen arma xumeak agortu arte.

Egia esan, ez zuen beste aukerarik. Albu Nimir tribuak ospea lortu zuen 2007an Al Qaedaren aurka borrokatu ziren sunien artean, Al-Sawha (Esnatzea) milizietan, hain zuzen. Eta yihadistek ez dute hori ahaztu.

Bagdadeko Gobernuari laguntza eskatu zioten, baina ez zen sekula iritsi. Balak agortu, eta tribuak amore eman behar izan zuen. Baina Daesh ez du errukirik erakutsi eta mezu odoltsua bidali nahi izan die Irakeko suni guztiei, teorian, bere sinesmenkide diren horiei. Alegia, ez deztela kalifatoaren agintea zala-tzan jarri, bestela... badakite zer datorkien.

Irakeko giza talde erraldoienaren (Al Duleimi tribua) barnean kokatzen dira Albu Nimirtarrak. Bere garaian Saddam Husseinen errejimenarekin tirabirak izan zituzten eta gaur egun Estatu Islamiarraren jomugan daude. Eta inork ez die lagunduko. Batzuen eta besteen erdian egon dira beti. Guztiek dauzkate erruduntzat.

Maletak

Saioa Iraola

Maleta egin eta banoa. Maletak egin behar

izan ditugu eta bagoaz. Maletak egiteko aukerarik gabe eta bota gaituzte. Maletan bi kontu sartu eta alde egin behar izan dut. Maletak egin eta bidali ditugu, ezinezko maletak, imajinatu ditugun maletak.

Maletak gure genealogiaren eramaile dira ganbarako apal zaharretan hautsak hartuak daudenean. Gure bizi proiektu osoaren eroaleak izan litezke, hara eta hona ibiltzeko bidelagunik fidelenak. Askatasunaren sinbolo eta lekuko dira hainbatetan eta beste batzuetan aldiz, jauzi eginez bizirauteko aukera bakarra.

Azken aldian, maleta asko ikusten ditut kalean, zubi azpian, gurasoen etxera itzuliak. Etxea, bizitokia kendu eta kale-ratutako herritarrak ehunka dira Euskal Herrian, eta beste asko bizi dira etxea galtzeko beldurrez. Bankuak diru publikoz enpo egiten ari diren bitartean, oinarritzko beharrak asetzea askoz zailagoa da gure jendartean. Depresioa eta etsipena eragiten du oinarritzko behar bat ezin asetzeak, lo-bizileku bat ukatua izateak, alegia. Eta muturreko egoera hauetan bada, maletak egin gabe, behartuta, joatea erabaki duenik, betirako. Maletak ez dituzte behar izan...

Txikitatik esan digute dirua sortzeko, gure denbora eta lan indarra kapitalari saldu eta ordainetan ateratako soldata ongi-ongi gordetzeko eta aurrezteko. Etxe bat erosteko, gogoz ikasteko lan finko eta on bat lortzeko, bikote heterosexual izan eta ezkontzeko... Baina, ni motxila egin eta banoa. Pare bat kulero, xaboia, hortzetako pasta eta eskuila, lo zakua, e-boka eta beste hainbat kontu soinean hartuta, ezer ez baita betirako. •

